

DBH1 GIZarte: **"Gaur egungoa demokrazia al da?"**
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	
1. Eremu digitaleko testuak baliatuz, bertan emandako irizpideen baitan, Antzinaroko eta gaur egungo aginte moduei buruzko informazioa bilatu eta hautatu ondoren, aginte moduak definitu.	<p>1.1. Eremu digitaleko testuetaz baliatuz, emandako irizpideen baitan, aginte-moduen inguruko galderak egoki erantzun ditu.</p> <p>1.2. Aginte-moduak identifikatu eta aurkitu ditu.</p> <p>1.3. Aginte moduak era egokian definitu ditu.</p>
2. Hainbat euskarritan informazioa bilatuz, Antzinaroko nahiz gaur egungo aginte moduak konparatu eta antzekotasunak eta berezitasunak adierazi.	2.1. Aginte moduak eta bere ezaugarriak era egokian erlazionatu ditu.
3. Eremu digitaleko informazioa baliatuz, Antzinaroko aginte moduak denboraren eta tokiaren arabera sekuentziatu eta denbora lerro digitalean irudikatu.	3.1. Idatzizko iturrietan oinarrituz, Erromako Antzinaroko aginte moduak denbora lerro batetan era egokian irudikatu ditu.
4. Jatorriaren eta edukiaren irizpideetan oinarrituz, eskainitako informazio-iturriak ebaluatu, hautatu eta sailkatzeko.	4.1. Eskainitako informazio iturriak finkatutako irizpideen arabera hautatu, sailkatu eta egindakoa justifikatu du.
5. Giza eskubideei buruzko informazioa emandako irizpideen arabera alderatu eta ondorioekin iritzi justifikatua adierazi.	<p>5.1. Emandako iturrien erabilgarritasuna eta idazlearen objetibotasunari buruzko galderak inferitu ditu.</p> <p>5.2. Informazio-iturrien egokitasuna balioetsi du.</p> <p>5.3. Giza eskubideen bilakaerari buruzko konparazioa burutu du.</p> <p>5.4. Giza eskubideen bilakaerari buruzko iritzi justifikatua osatu du konparazioan oinarrituta.</p>